

Aberri Eguneko adierazpena

ELAk Nazio Batzordea

2011ko apirilaren 18a

Bere mendeurrenreko Aberri Egunez ELAk aitoru egin nahi du langile-klasearentzako bizi- eta lan-baldintza duinak irmo defenditzeko ahalegina egin duten militante belaunaldi guztien konpromisoa. Une oso latza bizi dute lan munduak eta gizarteko sektorerek ahulenek. Gure militanteak harro daude egin duten bideaz, baina halaber berebiziko erronka batia aurre egitera behartuta daude, militante sindikal eta abertzale diren aldetik.

Krisi sozial eta ekonomikoa

Krisia –izatez eta jatorriz krisi kapitalista– baliatzen ari dira Europaren Bigarren Mundu Gerratik hona ikusi diren neurrik antisozialenak ezartzeko. Langabezia amaitzea ez da gobernuen politika ekonomikoaren lehentasuna. Aitzitik, gizarte-gastuko murrizketa gogorrak egitea erabaki dute, baliabide publiko itzelak botere ekonomiko eta finantzarioen esku jartzearen. Grezia, Irlanda eta Portugalgo erreskateen moduko pasadizoak benetan lotsagarriak dira, eta agerian uzten dute Europak erakunde sozial gisa porrot egin duela.

Gurean egoera politiko eta soziala oso larria da: erreforma fiskal progresistak egiteko aukera ukatzen da, eta horrekin batera aurrekontu zein gizarte-gastuko murrizketak erabakitzetan dituzte –baita gure autogobernuko erakundeek ere–; horrekin batera, erreforma laborala eta pentsioena egin dute, eta orain negoziazio kolektiboan erreforma egitekotan dira.

Botere publikoen babesean, patronalek etekina eman diezaiekeen guzta pribatizatzea exijitzen dute, batetik, eta xantaia eta mehatxuak erabiltzen dituzte, bestetik, negoziazio kolektiboan lan-baldintzak okertzeko.

Horri guztiari Lehiakortasunaren edo Euroaren Ituna delakoa gehitu behar zaio: europar gobernuak elkar hartu dute, eta beren ardura ezkutatzen dute, erreformak eta murrizketak egiterakoan. Sozialdemokrata zein kontserbadoreek, gero eta elkarren antza handiagoa dutela, grinaz ezartzen dituzte betidanik NMFrren moduko erakundeek defenditu dituzten doitzeko politikak.

ELAk ohartarazi nahi du, baita bere kezka adierazi ere, gizartean langabezia maila altuak epe labur eta ertainean eragin ditzakeen ondorioengatik, gizarte-babeseko beharrezko mekanismorik ezean. Besteak beste, sindikatuak ohartarazten du solasaldi arrazista eta xenofoboek esparru pribatua gainditu eta alderdi politikoen adierazpidean ere hasi direla agertzen. Gainera, erakundeek gizarte-laguntzak jasotzen dituztenak gero eta gehiago errudun gisa aurkeztean, solasaldi horiek indartu egiten dira. Horregatik, ELAk galdegiten du horrelako gezurrak erabat errefusa daitezela; faltsukeria horiek xede bakarra dute, krisiaren eta bere arduradunen jatorria, nahiz hartzen ari diren erabakien injustizia ezkutatzea. Ziurrenik, ezkerreko erreferentzia garbirik ez egoteak eskuin muturreko diskurtsoari hauspoa ematen dio.

Krisi politikoa

Hortaz, politika botere ekonomikoen esku agertzen da, eta baztertu egiten du krisia kudeatzerakoan oreka edo berdintasuna sartzeko aukera. Politikak ez du hobetzen hain hondatuta duen ospea, adibidez, arau emaile izan beharko luketen erakundeen “beharrezko autonomia” aldarrikatzen duenean, edo aurrezki-kutxen pribatizazioa zuritzeko “profesionaltasun irizpideak” aipatzen dituenean. Bere burua interes orokorra medio goratu ordez, politika honek uste du bere aurrerapidea kapitalaren balio, agenda eta ikusmoldeak bereganatzetik etorriko dela.

Horrenbestez, kontrapisurik gabe –eta komunikazio- zein kultura-, produkzio- eta kontsumo-bitartekoan jabe ia absolutu delarik– kapitala indar autoritario gisa eratzen da, herrien subiraniaren kontrakoa, eta eurei dagozkien eta eragiten dieten gaiei buruz –sozial, ingurumeneko, ekonomiko edo politikoak direla ere– era demokratikoan eta parte-hartzailean erabakitzeko eskubidea eragozten duela.

Politikaren menpekotasun honek demokrazia liberala izeneko horren konponezineko gabeziak agerian uzten ditu. Eta honekiko ezin biziagoa da gure sindikatuaren printzipioen adierazpena

(1976), esaten duenean “Kapitalista tresnak inola onartzen ez dituelarik, eta euskal langilegoaren talde kontzientziaren adierazpen bezala, bere buruaren jabe diren gizon eta Herri libreren gizartee baten alde jokatuko du, sozialismo batetan burutua izango den gizartea”.

Autogobernu mugatua, gainbehera

Krisiak nabarmen uzten du ere gure autogobernua zein mugatuta dagoen. Egia da erakundeek, esaterako Iruñeko edo Gasteizko gobernuak –Lopezen eta, lehenago, Ibarretxeren antzera–, estatu-politikak bere egin dituztela formazioa, lan-osasuna edota enpleguaren arloetan. Baino, gainera, krisiak gogora ekartzen digu esku-hartze ekonomiko eta sozialeko tresna nagusiak – lege laboralak, gizarte-segurantza edota zorpetze mailari buruzko erabakia– estatuko gobernuaren esku daudela, edo uzten direla. Hala ez denean estatuko irizpideak inongo kritikarik gabe bergartenzen dira, edo fiskalitateean foru-gobernuak estatuko zerga-politikarekin lehian dabilta, enpresen eta kapitalaren onerako. Gainera, esan beharra dago ere une honetan krisiaz baliatzen direla iritzia esparru autonomikoen atzerakadaren aldera ekartzeko, erakundeen inflazioaren aitzakiaz.

Lan munduari dagokionez, berriz, CCOO, UGT eta CEOE negoziazio kolektiboari buruzko itun bat sinatzekotan dira, Spainiako elkarrizketa sozialaren baitan. Langile-klasea txirotu ez ezik, hitzarmen horrekin euskal sindikatu nagusien lan-baldintzak Euskal Herrian negoziatzeko eskubidea murriztu nahi dute; horrek euskal langileek erabakitzeko duten esparru bakanetakoa desitxuratzzen du.

Elkarrizketa sozialak gobernuen politikak bedeinkatzen ditu eta sindikalismo abertzalea gero eta gehiago baztertzen du, baina gainera estatuan lan-harremanak uniformatzeko tresna gisa erabiltzen da. Parte-hartzeko erakundeak berak gobernuaren politikak onesteko tresna bilatzen dituzte. Horren adibide argia da joan den astean EAeko EGABen gertatu zena, murrizteko neurriak zuritzeko bilakaera demografikoari buruz eman zuen txostena, alegia.

Estatuari aurre egin

ELAren iritziz, estatu-ituna sasoi betean dago. Hauteskundeetako lehiak gorabehera, autogobernuaren inboluzioa *de facto* lortzen dute, legeak ez beteta, oinarri-legeekin, gobernatzeko itunekin eta euskal erakundeen esparruan erantzunik jasotzen ez duten erabaki politiko zein administratiboekin; ez dute ihardesten orain gobernuan daudenek, baina ezta gobernuratzeko aukera dutenek, ez lehenago agindu dutenek ere. Eragina ez da bakarrik Euskal Herrian somatzen. Konstituzio Auzitegiak Kataluniak Autonomia Estatutuari buruz emandako epaia –errekursoaren aurretik ere estatutua aski kimauta bazegoen ere– zalantzariak gabe uzten ditu agerian esparru instituzional hutsetik aldaketa politiko bat eragiteko dauden aukerak. Kontrara, duela gutxi egin diren konsultak ariketa polita izan dira pedagogia demokratiko eta parte hartzezkoari dagokienez, konsultek independentziaren inguruko eztabaidaren tabua haustea lortu baitute.

Haatik, gure esparruan, Eusko Jaurlaritzak eta nazionalismo instituzionalak estatutu-esparruari balioa aitortu nahi izan diote, eta hartara enplegu-politika aktiboen eskumen murriztu bat ekarri dute. Zoritzarrez, garai batean onartezina zen hora denbora igarota, beste gabe, lorpen gisa saldu dute.

Egoera honetan, ELAk uste du etorkizunik gabe geratu direla espaniar trantsizio politikotik hona euskal nazionalismoaren bi joera handiek autogobernuan aurrera egiteko jarraitu izan dituzten estrategiak. ELAren irudiko, behin betiko egitatetzat jo behar dugu subiranismoak arrakasta izateko bide bakarra indarrak demokratikoki bat egitea dela, estatutari aurre egin eta subirania lortze aldera. Bat egite horretarako jokatzeko beste kode batzuk behar dira, guztiok bat gatozen eta alderdien arteko lehiatik salbu izango diren aldarrikapen minimo batzuk definitzeko; alderdien arteko lehia zilegi da, baina subirania irabazteko estatuari aurre egiterakoan eragozpen bihurtzen da.

Ipar Euskal Herrian, lurralte-kolektibitateen erreforma estatalak arriskuan jartzen ditu beste tresna batzuk, hala nola Pays-a, Garapen Kontseilua edo Hautetsien Kontseilua, eta agerian uzten du sakoneko arazoa, hots, Iparraldeak erakundeetan ez daukala islarik. Horregatik, egoera politiko honek are legitimitate eta balizko babes handiagoa ematen dio Batera plataformaren lanari eta beronen aldarrikapenari, Iparralderako Lurralte-Kolektibitate berezi bat.

Bakerako elkarrizketa eta negoziazioa

ELAk uste du gaurko egoeran aintzat hartu behar dela ilegalizatutako sektore politikoaren prozesua, hartu duen aldebakarreko erabakia eta soilik bide bakezko eta demokratikoetatik jotzeko egin duen apustua.

ELAk errefusatu egiten du Espainiako gobernuaren jarrera setatia, baztertu egiten baititu bakerako dauden aukerak, esaterako, su-etenak eta nazioarteko egiaztatzea egiteko proposamena. Hau arduragabekeria handia da, gobernuek sustatu behar duten interes komunarekin zerikusirik ez duena.

Halaber, ELAk arbuiatu egiten du ETAk iraganean, gaur edo etorkizunean prozesu politikoa tutelatzeko edo eragozteko egin dezakeen saio oro. ETAk armak behin betiko utzi behar ditu. Hori eskatzen dio euskal gizartea.

Dena den –egoera konplexu eta zail honetan– ELAk uste du berriro aldarrakatu behar direla elkarrizketa eta negoziazioa. Gaur inork ez du esaten –esparru politikotik eta normalizazio prozesuari dagokionez– elkarrizketa horren edukia lurraldetasuna edo autodeterminazio eskubidearen moduko gaiak izan behar denik. Elkarrizketa politiko horren xedea trantsizio bat ordenatzea izan beharko litzateke, trantsizio hori inondik ere zaila baita. Banakoen eta kolektiboen ibilbidea elkar bizitzeko moduan moldatzea ezinbesteko oinarria da –bakarra ez izanagatik– gure herriaren mailakako adiskidetze eta normalizaziorako. Elkarrizketak bidera dezakeen negoziazio horrek alde desberdinei bide egingarriak eskaini behar dizkie, bakezko behin betiko agertoki bat finkatzearen.

Errepresio amaigabea

Zoritzarrez, espainiar estatuak ez du trantsizio hori erraztu nahi. Bere hortan dirau gizabiderik gabeko espelte-politikak (sakabanatzea, Parot doktrina, gaixoenganako tratua...); duela gutxi askatutako pertsonak espelxeratu arazi nahi dituzte, zigorra bete duten arren; tratu txar eta tortura salaketak bata bestearren atzetik datozen, eta duela gutxi testigantza ikaragarriak ezagutu ditugu; gizarteko sektore handi bati egindako jazarpenak darrai, borroka antiterroristaren aitzakiaz; Auzitegi Gorenaren epaiak Sortu legeztatzea galarazten du, eta orain Espainiako gobernuak mehatxu egiten du balizko hauteskunde-aliantzei edo beste zerrenda batzuri ekingo diela; *euroagindua* Ipar Euskal Herriko Batasunaren militanteak *de facto* legez kanpo jartzeko erabiltzen da... Honek guztiak amairik ez duen sorgin-ehiza esan nahi du, mendeku goseak eta alderdientzako etekina atera nahiak bultzatako ehiza.

Jokabideok zentzurik gabeko sufrimendu bidegabean eragiten dute. Gainera, milaka euskal herritar, sufragio pasibo eskubidea formalki kendumendu ez zaien arren, izatez gabetuak daude, ezin baitute hautes-prozesuetan aurkeztu eta hautatuak izan, lehenago legez kanpo jarri izan ziren sigla eta zerrendetan agertu zirelako. Horrelako ilegalitaterik inongo estatu demokratikotan ez da ezagutu.

Borroka sozialen aldarrikapena

Egoera sozial eta politikoa hain gogorra delarik, ELAk aintzat hartu nahi du nazio-eraikuntzan ekarpenik berezkoena duena; horixe da, gure uezet, herri subirano eta libre bat eta gizarte justuago bat lortzeko garrantzitsuena. Oro har goraipatu nahi du gure sindikatuak bezala –hitz, keinu eta ekintzen bidez– botereei men egiteari uko egiten dioten pertsona eta talde horien lana. Hots, gizarte justuago baten alde lanean diharduen militantzia ohoratu nahi du.

Krisia hasi zenetik gehiengo sindikalak hiru greba orokor eta beste hainbat agerraldi deitu ditu. Halaber, gure militanteek duintasun izugarria izan dute enpresen itxiera, erregulazio dosier eta hitzarmenek negoziazioan sortu diren gatazketa. ELAk borroka honi ekiten dion artean xantaia eta mehatxuak dira nagusi; agintzen ari diren edo agintzeko aukera duten indar politiko guztien aurka ari da eta, noski, patronalaren eta gainontzeko botere ekonomiko zein finantzarioen kontra. Uneotan eztabaidea soziala ere debakatzen da. Gogora dezagun gure herriko komunikabideak –batik bat publikoak, EITB kasu– gizarteko borrokak, oro har, eta ELAren sindikalismoa, bereziki, ezkutatzeko ahaleginean ari direla.

Baina ELA ez dago bakarrik kontrabotere sozial eta politikoaren esparruan. Euskal gehiengo sindikalaren baitako lankidetzak ilusioa pizten du, eta eman ditzakeen fruitu sindikal, sozial eta politikoak begibistakoak dira. ELA eta LAB azken hiru urteotan izan dugun hurbiltze praktikoa, bere zaitasunekin, langile-klasearentzat itxaropenerako motibo da.

Botereek hedatu nahi duten ezintasun sentipen orokorra gorabehera, beste borroka asko gorpuzten ari da gurean. Esaterako, Bidasoaren alde bietan Abiadura Handiko Trenaren aurka, pentsioen murrizketak salatzeko edota euskara bultzatzeko garatzen diren borrokak; frantses estatuari Laborantza Ganbarak irabazi dion gudua, baserritarren nekazaritzaren aldeko bere apustuarekin; Hego Euskal Herrian memoriaren inguruan, giza-eskubide, eskubide zibil eta politikoen defentsan lanean ari diren hamaika elkarrean; guztiotzako etxebizitza duina bermatzeko lana, nahiz pobrezia borrokatzeten duten ekimen eta taldeak; Baterak Ipar Euskal Herrian bultzatu duen udal-kontsulten dinamika, sinbologia nazionalaren esparruan egiten ari den lana...

Hauetako borroka askok, sindikalak bezala, nazio eraikuntzarako interes handiko osagai komunak eta ez hain komunak ditu: Euskal Herria hautatzen dute esku-hartzeko esparru naturaltzat; helburua giza-eskubideak, sozialak, laborala, politikoak edo ingurumenarekikoak dira; militanteen artean modu naturalean biltzen dituzte euskal gizartean dauden identitate desberdinak, kultura, nazio eta hizkuntzari dagokionez; kontu publikoetan gizartearren parte hartze zabala sustatu nahi dute; kasu askotan euskarak status egokia eta gero eta hobea dauka, eta euretako askok subjektu nazionala balesten dute, zeinak berari dagozkion gai guztiei buruz erabakitzeko ahalmena izan behar duen, estatuekiko harremana barne...

Beraz, borroka hauek oso desberdinak dira alderdien arteko liskarrek kutsatutako beste dinamika politiko batzuekiko. ELAk uste du Aberri Egunaren testuinguruan zer hausnartua eman behar duela ikusteak gizartearren beharrizanak alderdien eta, areago, erakundeen politikarekiko zeinen urrun dauden.

Gure konpromiso berretsia

ELA duela ehun urte sortu zen, mugimendu abertzalearekin gero eta gehiago bat egiten ari ziren langile masak euskal sindikatu batean antolatzeko. Gaurko egunera arte hainbat langile beraunaldik sindikatu honetan aurkitu du nazio justuago eta burujabeago baten alde militatzeko gune berezia. Horregatik, ehun urte igarota, ELArentzat batez ere gauza bat da pozgarria, aldarrikapen-sindikalismo batera milaka eta milaka langile bildu izana, nazio, kultura, hizkuntza, genero, erlijio, adin eta hautu sexual anitzetakoak. Arrakasta horren arrazoiak nagusia, noski, sindikalismo militante eta autonomoa, politikoki zein finantzen aldetik, eraiki izana da.

Hori guzgia medio, ELAk agintzen du lanari eutsi egingo diola Euskal Herri batu, aske eta justu bat lortzeko aukera eman dezakeela uste duen lankidetza-esparru sozial, sindikal eta politiko orotan, eta bere afiliaturei dei egiten die berrets dezaten beren ilusioa eta konpromiso militante abertzale eta klasekoa.

Declaración del Aberri Eguna

Comité Nacional de ELA

18 de abril de 2011

En el Aberri Eguna del año de su centenario, ELA quiere dar valor al compromiso de todas las generaciones de militantes que se han empeñado en defender unas condiciones de vida y trabajo dignas para la clase trabajadora. Lo hace en un momento especialmente duro para el mundo del trabajo y los sectores sociales más desprotegidos. Nuestra militancia se siente orgullosa del camino realizado pero, al mismo tiempo, urgida a asumir un reto enorme como militantes sindicales y como abertzales.

Crisis social y económica

La crisis –de naturaleza y origen capitalista– se está utilizando para imponer las medidas más antisociales que se recuerdan en Europa desde la segunda guerra mundial. Acabar con el desempleo no es la prioridad de la política económica de los gobiernos. Por el contrario, han decidido proceder a graves recortes de gasto social para poner inmensos recursos públicos al servicio de los poderes económicos y financieros. Episodios como los rescates de Grecia, Irlanda y Portugal son una auténtica vergüenza, una certificación del fracaso de Europa como construcción social.

En nuestro ámbito, la negativa a abordar reformas de tinte progresista en la fiscalidad y los consiguientes recortes presupuestarios y de gasto social –también de nuestras instituciones de autogobierno–, todo ello unido a la reforma laboral, de las pensiones y la anunciada de la negociación colectiva, conforman un cuadro político y social muy grave.

Amparadas por los poderes públicos, las patronales exigen, por un lado, que todo lo que es susceptible de otorgarles beneficio debe ser privatizado y, por otro, chantajea y amenaza para modificar a la baja las condiciones de trabajo en la negociación colectiva.

A todo esto hay que sumar el llamado pacto por la Competitividad o del Euro, por el cual los gobiernos europeos se han conjurado y se autoexculpan para seguir profundizado en las reformas y recortes. Socialdemócratas y conservadores, cada vez más indistinguibles, comparten con fervor las políticas de ajuste que históricamente han defendido instituciones como el FMI.

ELA quiere alertar y mostrar su preocupación creciente sobre las consecuencias sociales que en el corto y medio plazo puede tener la situación de desempleo tan grave sin los necesarios mecanismos de protección social. Además de otras consecuencias, en particular quiere advertir sobre los discursos racistas y xenófobos que abandonan la privacidad y toman cuerpo incluso en las expresiones de los partidos políticos. Además, el hecho de que las instituciones culpabilicen de manera creciente a los perceptores de ayudas sociales contribuye grandemente a fortalecer esos discursos. Por ello ELA urge a rechazar de plano este tipo de falacias que no pretenden sino ocultar el origen de la crisis y sus responsables, así como la injusticia de las medidas que se están tomando. A buen seguro, la ausencia de referencias nítidas de izquierda está permitiendo dar alas al discurso de la extrema derecha.

Crisis política

La política aparece por lo tanto intervenida por los poderes económicos, y renuncia a introducir elementos de equilibrio y equidad en la gestión de la crisis. La política ovaciona su propio des prestigio cuando, por ejemplo, defiende la "necesaria autonomía" de las instituciones que debieran ser reguladoras, o cuando justifica la privatización de las cajas de ahorros aduciendo "criterios de profesionalidad". Lejos de prestigiarse a sí misma en el bien común, esta política busca su promoción en hacer suyos los valores, la agenda y la visión del capital.

Consecuentemente, sin contrapeso –y dueño casi absoluto de los medios de comunicación y cultura, de producción y de consumo– el capital se configura como una fuerza autoritaria contra la soberanía de los pueblos, contra su derecho a decidir democrática y participativamente sobre cuantas cuestiones sociales, medioambientales, económicas o políticas le incumben y afectan.

Esta subordinación de lo político revela las fallas incorregibles de la llamada democracia liberal. Y en este contexto cobra toda su vigencia la declaración de principios de nuestro sindicato (1976) cuando dice que "en desacuerdo total con los mecanismos capitalistas y como expresión de la conciencia colectiva de los trabajadores vascos, ELA laborará por una sociedad de hombres y pueblos libres y responsables, que será realizable en el socialismo".

Autogobierno limitado y en caída libre

La crisis evidencia también las limitaciones de nuestro autogobierno. Es cierto que instituciones como el gobierno de Iruña o de Gasteiz, –y de manera similar López y antes Ibarretxe– han hecho suyas de modo más o menos acrítico las políticas del estado en temas que tienen que ver con la formación, la salud laboral o el empleo. Pero, además, la crisis nos recuerda el hecho de que los principales instrumentos de intervención económica y social –como la legislación laboral, la seguridad social o la decisión sobre el nivel de endeudamiento– están o se dejan en manos del gobierno del estado. Cuando no es así, se asumen los criterios estatales sin la más mínima crítica o, como en el caso de la fiscalidad, los gobiernos forales compiten con las políticas fiscales del estado en beneficio de las empresas y al capital. Hay que señalar además que, en este contexto, se está aprovechando la crisis para generar un estado de opinión favorable a la regresión de los marcos autonómicos con la excusa de la inflación institucional.

En lo que al mundo del trabajo afecta aún de manera más directa, CCOO, UGT y CEOE se encuentran en vísperas de lograr un pacto sobre negociación colectiva en el marco del diálogo social español. Además de empobrecer a la clase trabajadora, ese acuerdo pretende limitar el derecho de los sindicatos vascos mayoritarios a negociar las condiciones de trabajo en Euskal Herria, recortando así uno de los escasos ámbitos de decisión para los trabajadores y trabajadoras vascas.

El diálogo social, además de dar cobertura a las políticas de los gobiernos y marginar de manera creciente al sindicalismo abertzale, está sirviendo también como instrumento de uniformización de las relaciones laborales en el estado. Los mismos órganos de participación institucional se instrumentalizan para dar cobertura a las políticas del gobierno. Lo sucedido en el CES de la CAPV la pasada semana –en relación con el informe sobre la evolución demográfica para justificar las medidas de recorte– es una buena muestra de ello.

Confrontar con el estado

El pacto de estado, en opinión de ELA, goza de una salud excelente. Más allá de disputas de carácter electoral, la involución del autogobierno funciona *de facto* a golpe de incumplimientos, leyes de bases, pactos de gobernabilidad y decisiones políticas y administrativas que no encuentran respuesta en el ámbito institucional vasco, ni por parte de quienes gobiernan ni por aquellos que tienen opción de hacerlo o lo han hecho en el pasado. Esto no sólo afecta a Euskal Herria. El fallo del Tribunal Constitucional en relación con el Estatuto de Autonomía catalán –ya significativamente “cepillado” antes de su recurso– no deja lugar a dudas sobre las posibilidades de propiciar un cambio político desde el ámbito exclusivamente institucional. Por el contrario, las recientes consultas realizadas suponen un gran ejercicio de pedagogía democrática y participativa que ha conseguido romper el tabú respecto del debate de la independencia..

A pesar de todo ello, en nuestro ámbito, Gobierno vasco y nacionalismo institucional han querido dar valor al marco estatutario procediendo a una transferencia mutilada de las políticas activas de empleo. Lamentablemente, el simple transcurso del tiempo ha conseguido que una transferencia inaceptable en el pasado se presente como un logro.

En este contexto, ELA considera que las estrategias seguidas desde la transición política española por las dos grandes familias del nacionalismo vasco para avanzar en el autogobierno carecen ya de futuro. ELA cree que es hora de dar por definitivo que el soberanismo sólo tiene posibilidades de éxito si es capaz de sumar democráticamente para confrontar con el estado y ganar la soberanía. Esta suma exige nuevos códigos de actuación para definir unas reivindicaciones mínimas compartidas que estén a salvo de la lucha de espacios partidarios, legítima pero contraproducente en la confrontación con el estado para ganar la soberanía

En Iparralde, la reforma estatal de las Colectividades territoriales pone en peligro instrumentos como el Pays, Consejo de desarrollo y Consejo de los electos y queda en evidencia el problema crucial planteado por la inexistencia institucional del País Vasco norte. Por ello, esta coyuntura política da aún más

legitimidad y respaldo potencial al trabajo de la plataforma Batera y a su reivindicación de una Colectividad territorial específica para Iparralde.

Diálogo y negociación para la paz

ELA considera que en la actual coyuntura hay que conceder relevancia al proceso realizado por el sector político ilegalizado, al proceso unilateral y de apuesta exclusiva por vías pacíficas y democráticas que ha realizado.

ELA repreeba la persistencia del gobierno español de los gobiernos en desaprovechar las oportunidades para la paz –como el alto el fuego y la propuesta de verificación internacional–. Se trata de una gran irresponsabilidad, ajena al bien común que los gobiernos deben promocionar.

ELA rechaza asimismo cualquier intento por parte de ETA –pasado, presente o futuro– de tutelar el proceso político u obstaculizarlo. ETA debe dejar las armas definitivamente. Eso es lo que le reclama la sociedad vasca.

Con todo –en este escenario no exento de complejidad y dificultades– ELA cree que es preciso volver a defender el diálogo y la negociación. Nadie está planteando hoy –desde instancias políticas y en relación con el proceso de normalización– que ese diálogo deba tener por objeto abordar cuestiones como la territorialidad o el derecho de autodeterminación. El objeto de ese diálogo político debería ser ordenar una transición que es, en cualquier caso, difícil. Encauzar en el camino de la convivencia trayectorias personales y colectivas es una de las bases imprescindibles –no la única– para la progresiva reconciliación y normalización de nuestro pueblo. Esa negociación posibilitada por el diálogo debe ofrecer cauces operativos a las partes para blindar un escenario definitivo de paz.

Represión que no cesa

Lamentablemente el estado español no quiere facilitar esa transición. No cesa la política penitenciaria inhumana (dispersión, doctrina Parot, trato a los enfermos...); se insta al encarcelamiento de personas que –habiendo cumplido sus penas– han sido recientemente excarceladas; se suceden las denuncias de malos tratos y torturas, de las que recientemente hemos conocido testimonios espeluznantes; persiste la persecución de un espacio social amplísimo bajo la excusa de la lucha antiterrorista; se publica la injusta sentencia del Tribunal Supremo impidiendo la legalización de Sortu y ahora se amenaza con actuaciones del gobierno español contra posibles alianzas electorales u otras listas; se utiliza la *euroorden* para ilegalizar *de facto* a la militancia de Batasuna en Iparralde... Todos estos hechos nos perpetúan en una caza de brujas presidida por códigos de venganza y beneficio partidario.

Estas prácticas generan un sufrimiento inútil e injusto. Y hace también que miles de vascos y vascas que formalmente no están privadas del derecho al sufragio pasivo, lo estén de facto al no poder presentarse y ser elegidos en los procesos electorales por el hecho de haberse presentado anteriormente por siglas y listas ilegalizadas. Se trata de una ilegalidad sin parangón en ningún país democrático.

Prestigiar las luchas sociales

En un contexto social y político tan duro ELA quiere dar valor a aquello que es su aportación más genuina en la construcción nacional y considera más importante para alcanzar una nación soberana y libre y para lograr una sociedad más justa. Quiere valorar de manera general el trabajo de aquellas personas y grupos que se niegan, como nuestro sindicato –con palabras, gestos y acciones– a dar complacencia a los poderes. Se trata, en definitiva, de honrar la militancia que trabaja por una sociedad más justa.

En lo que va de crisis la mayoría sindical ha convocado tres huelgas generales, además de multitud de movilizaciones. Al mismo tiempo, nuestros militantes están dando muestras de una enorme dignidad en los conflictos derivados de cierres de empresa, los expedientes de regulación y la negociación de convenios. ELA está manteniendo esta lucha en un contexto de chantajes y amenazas, contra todas las fuerzas políticas que gobiernan o tienen opción de hacerlo, y desde luego, contra la patronal y el resto de poderes económicos y financieros. Lo hacemos en un momento en que se proscribe incluso el debate social. No está de más recordar el papel de ocultamiento que los medios de comunicación del país –y sobre todo los públicos como EiTB– están jugando respecto a las luchas sociales en general y el sindicalismo de ELA en particular.

Pero ELA no está sola en el espacio del contrapoder social y político. La colaboración en el seno de la mayoría sindical vasca constituye un elemento ilusionante cuyas virtualidades sindicales, sociales y políticas son evidentes. El acercamiento práctico, no exento de dificultades, que ELA y LAB venimos realizando en estos tres años es un elemento de esperanza para la clase trabajadora.

Frente al sentimiento de impotencia generalizada que los poderes pretenden transmitir, otras muchas luchas toman cuerpo en el país. Luchas como las que están teniendo lugar a ambos lados del Bidasoa contra el Tren de Alta Velocidad, los recortes de pensiones o la promoción del euskara; la batalla ganada al estado francés por la Laborantza Ganbara y su apuesta por una agricultura campesina; las innumerables asociaciones que en Hegoalde trabajan sobre la memoria, por la defensa de los derechos humanos, civiles y políticos; el trabajo por garantizar vivienda digna para todos o iniciativas y grupos comprometidos en la lucha contra la pobreza; la dinámica de las consultas municipales impulsada por Batera en Iparralde, el trabajo en el campo de la simbología nacional...

Muchas de esas luchas, junto a la sindical, tienen elementos más o menos comunes de gran interés para la construcción nacional: sitúan a Euskal Herria como ámbito de intervención natural; tienen como objetivo derechos humanos, sociales, laborales, políticos o medioambientales; permiten integrar con naturalidad en su militancia la diversidad de identidades culturales, nacionales, lingüísticas... presentes en la sociedad vasca; buscan promover una amplia participación social en los asuntos públicos; en muchas de ellas el euskara goza de un estatus favorable y creciente; y no pocas afirman un sujeto nacional que debe poder decidir sobre cuantas cuestiones le afectan, incluida su relación con los estados...

Estas luchas, en definitiva, marcan un contrapunto a otras dinámicas políticas muy afectadas por disputas de tinte partidario. ELA cree que la distancia existente entre la política de partidos y aún más la institucional por un lado, y las necesidades y aspiraciones de la sociedad por otro, debe ser un motivo de reflexión en el contexto del Aberri Eguna.

Renovar nuestro compromiso

ELA nació hace cien años para encuadrar en un sindicato vasco a las masas de trabajadores y trabajadoras que de manera creciente se iban vinculando al movimiento nacionalista. Generaciones de trabajadores y trabajadoras hasta el día de hoy han encontrado en este sindicato un ámbito singular para militar por una nación más justa y soberana. Por eso, cien años después, ELA se congratula, sobre todo, de haber logrado vincular a un sindicalismo reivindicativo a miles y miles de trabajadores y trabajadoras de toda condición nacional, cultural, lingüística, de género, religiosa, de edad u opción sexual. Haber conseguido construir un sindicalismo militante y autónomo –política y financieramente– es sin duda una de las razones fundamentales que explican ese éxito.

Por todo ello, ELA se compromete a seguir trabajando cuantos espacios de colaboración sociales, sindicales y políticos entienda puedan contribuir a alcanzar una Euskal Herria unida, libre y justa, y anima a sus afiliados y afiliadas a renovar su ilusión y compromiso militante abertzale y de clase.